

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saila

Ekintzaileei laguntzeko beken 2021eko udal programako laguntza ekonomikoen bigarren ordaintza (ehuneko 50) onestea

Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko abenduaren 11ko erabakiz onetsi ziren Gasteizko Udalaren 2021eko dirulaguntza-deialdiak arautzeko oinarri orokorrak, eta horien 2. atalean zehazten dira aurreikusitako eremuak eta dirulaguntzen ildoak; besteak beste, Enpresen Zerbitzuan, 24. ildoak, ekintzaileei laguntzeko beken udal programa (2020ko abenduaren 30eko ALHAO, 148. zenbakia).

Aurreikusitako helburuak eta ekintzak garatzeko, eta aipatutako deialdiaren oinarri orokorretan ezarritakoari lotuz, Tokiko Gobernu Batzarrak ekintzaileentzako beken udal programaren oinarriak eta deialdi publikoa onetsi zituen 2021eko otsailaren 26ko erabakiz —2021eko martxoaren 15eko ALHAO, 30. zk.—, 84.000,00 euroko zuzkidurarekin, 2021eko ekitaldiko udal aurrekontuko 0821.4331.489.84 partidaren kontura.

Deialdiaren lehen faserako eskabideak aurkezteko epea 2021eko ekainaren 15ean bukatu zelarik, 2021eko uztailaren 9ko idazki baten bitartez Enpresen Zerbitzuko teknikariek jakinarazi zuten hogeita sei eskabide jaso zirela epearen barruan, eta horietatik hiruk ez zituztela betetzen deialdiaren betekizunak.

Eskabide horiek aztertu ondoren, Hautatze eta Jarraipen Batzordeak 2021eko uztailaren 9an egindako bilkuran analizatu eta eztabaidatu ziren, eta balioetsi. Ikusirik betekizunak betetzen zituztela eta aurkeztutako proiektuak egokiak direla, deialdia ebazteko proposamena aurkeztu zitzaion Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari, eskatutako bekak eta horiei dagozkien diru-kopuruak eman zekizkien 9. puntuaren ezarritako gutxieneko 65 puntuak gainditu zituzten hogeita bi eskatzaileei, eta puntuazio hori lortu ez zuen eskabidea eta deialdiaren 3. eta 14. oinarrietan ezarritako betekizunak betetzen ez zituzten beste hiru, berriz, ezetsi zitzaizkien; zehazki, horietako bi xede eta helburu bereko beste laguntza publiko batzuen onuradun gisa ageri direlako, eta beste bat, Gasteizko Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean ez izateagatik.

Horrenbestez, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki zuen, 2021eko uztailaren 12an, deialdiko baldintzak betetzen ez zituzten eskabideak ukatzea, eta 22 beka ematea horiek betetzen zituztenei, eta laguntzaren ehuneko 50a ordaintzea, deialdiaren 10. oinarrian xedatutakoaren arabera.

2021eko irailaren 17an, enpresa-proiektuen tutoretzaren eta jarraipenaren arduradunak txostena egin zuen, burututakoaren oroitidazki teknikoa aurkeztu duten onuradunei bekaren bigarren ehuneko 50a ordaintzearen alde.

Horrenbestez, udal-aurrekontuetan nahikoa kreditu-zuzkidurarik badagoenez, hautatze- eta jarraipen-batzordeak egindako proposamena aintzat harturik eta eskumenak eskuordetzeko 2021eko otsailaren 26ko erabakia dela medio, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak:

Eebatzi du

Lehena. Deialdiaren 4. oinarrian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, pertsona hauei 2021eko uztailaren 12ko ebazpenaren bidez ekintzaileei laguntzeko emandako beken bigarren ehuneko berrogeita hamarra (ehuneko 50) ordain dakiela onestea:

	NANA	PUNTUAK	DIRULAGUNTZA EMANA (EURO)
1	18597845E	81	980
2	20169270H	79	920
3	Y3369539F	79	920
4	74359255W	78	890
5	72825057L	78	890
6	72734335D	76	830
7	72747192D	76	830
8	72740311M	75	800
9	X3080834F	74	770
10	72840927L	74	770
11	72841590S	73	740
12	72751256W	73	740
13	72718506G	72	710
14	72454092K	72	710
15	44673960W	71	680
16	20216498G	71	680
17	Y1637012R	71	680
18	44671233N	70	650
19	X1224507X	70	650
20	Y0889052R	68	590
21	Y2464750S	68	590
22	Y0897066B	65	500

Bigarrena. Ordainketa horien zenbatekoa (16.520 euro) 2021eko udal aurrekontuko 0821.4331.489.49 partidako deialdi horren zorpekinaren kontura jasota uztea (7. oinarria).

Hirugarrena. Beken onuradunek deialdiaren oinarrietan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte, horiek ezereztu ahalko dira, eta laguntza osoa edo zati bat ordainduta badago, jasotako diru-kopurua itzultzeko eskatuko da.

Laugarrena. Interesdunari ebazpena jakinaraztea, eta ohartaraztea ezen haren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daitekeela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, aldeztu aurretik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori espresuki edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, bi hilabeteko epea izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, berriazko araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko azaroaren 9an

Administrazio-zerbitzuko burua
IGNACIO CEPEDA CRESPO